

## **JESUSEN LAGUNDIA BIDE BERRIAK URRATZEN?**

### **Azken batzar orokorraren garrantzia**

Lehenko urtarilaren zazpigarrenean, jesuitek bere kongregazio orokorrari Erroman ekin ziotenean, jakin-nahi handia sortu zen ez Jesusen Lagundian soilik, baina baita eliza osoan ere. Erljio elkarterik handiena izanik elizan, nor izango ote zen han hautatuko zuten prepositu jenerala garrantzi handiko erabaki bat izan zitekeen. Mundu osoko jesuitek osatzen duten batzar orokorrak helburu hauek izaten ditu: edo hildako prepositu jeneralaren ondorengoa hautatu edo bestela lagundi orokorrarentzat berebiziko garrantzia duten gaiak landu, aztertu. San Inaziogandik honantz 35 aldiz ospatu dira batzar hauek.

### **Nori botoa eman**

Eta heldu zen Nagusi berria hautatzeko eguna, urtarilaren 19garrenean. Batzarrean, denera, 225 ziren partaideak, baina 217 hautesleak. Aurretik, lau egun bete zituzten ordezkariak zein den gaurko munduaren egoera aztertuz, gaurko giro honetan nola azaltzen den Jesusen Lagundia bere barne bizitzan eta ekintzetan, nolakoak diren elizarekin dituen harremanak eta abar. Eta horren arabera, nor izan zitekeen egokiena edo

jatorrena prepositu jeneralaren lanerako eztabaidatu zuten. Egun haietan ez ziren izan bilerak eta eztabaidak bakarrik; otoi asko egin zuten bai batzarrean bertan denen artean, eta baita bakoitzak bere aldetik ere. Bazekiten, bai, zein handia zen egin behar zuten aukera, bai Jesusen Lagundiarentzat eta baita eliza berarentzat ere. Larunbata zen urtarilaren hemeretzigarrenean, lehenengo, meza ospatu zuten aldameneko *Santo Spirito* elizan. Otoi luze bat egin ondoren, hasi ziren botoa ematen. Eta bigarren txandan, horra non aukeratzen duten aurreko kinielatan azaltzen ez zen gizon bat: Adolfo Nicolás.

Aita Nicolás, Jesusen Lagundian ezaguna zen, noski. Gehiago oraindik. 1995. urtean bildu zen kongregazio orokorrean idazkari izendatu zuten, eta oso aipatua izan zen erakutsi zi-



*Aita Nikolas jeneral berria eta Peter Hans Kolvenbach aurreko jenerala.*

tuen dohainengatik. Baino bestalde, zahar xamarra izan zitekeela kargu horretarako uste zen; datorren apirilean 72 urte beteko baititu. Nonbait hori ez zen oztopo handi bat izan bera hautatzeko. Hautesleek ez digute esango honetaz zer eztabaidatu zuten. Baino badirudi, nahiz eta jesuiten araudiak agindu prepositu jenaralak bizi guztian jarraitu behar duela karguan, hemendik aurrera gaurko mundu honen martxa eta biziaren luzapena kontuan harturik, komenigarri izan daitekeela zuzendari orokorrak urte batzuk irautea gehiegi zahartu gabe

### **Nor da Aita Adolfo Nicolas.**

Palentziako Villamuriel del Cerrato herrian jaio zen. Txikitik Kataluniara joan zen bizitzera bere gurasoeekin. Eta han, ikastetxean, katalan hizkuntza ikasi zuen. Gero Jesuiten Nobizio-etxean sartu eta ohizko ikasketa guztiak egiten hasi zen, bereziki filosofia eta teologia. Berak eskatu bezala, bere nagusiek Japoniara bidali zuten. Han egin zituen teologi ikasketak eta Tokion bizi zelarik egin zen apaiz. Ondoren, Erromako Unibertsitate Gregorianora joan zen eta han teologi doktoretza lortu zuen. Itzuli zen berriz ere Japoniara eta han zenbait urteetan teologia erakutsi zuen Jesuitek Tokion daukaten “*Sofia*” Unibertsitatean. Filipinetan sei urte bete zituen zuzendari bezala zenbait nazioetako apaizentzako ikastetxe berezi batean, Vatikanoko Kontzilioko dotrina eta espiritua erakusten. Itzuli zen berriz ere Japoniara eta han nazio hartako jesuiten nagusi edo “Probintzial” izendatu zuten. Horretan sei urte bete zituen. Ondoren, Asiako nazio guztietako jesuiten elkarte zabal baten zuzendari aukeratu zuten. Horrek esperientzia handia eman zion Asiako erlijio eta kulturak gero eta hobeto eza-gutzen eta maitatzen. Vatikanon Asiari buruz egin zen Sinodo batetan ere, Japoniako Gotzainek beren kontseilari bezala eduki zuten. Honetan egin zuen lana oso aipagarria izan zen, baino Vatikanoko barruan izen handiko batzuek ez zuten onartu bere pentsaera.

## **Lehenengo iritziak Aita Nikolasi buruz**

Aita Adolfo Nikolasen hautapena oso txalotua izan da, ia salbuespenik gabe. Jakinduri eta esperientzia handiko gizona, Asiako lurralde, erlijio eta kulturak ongi ezagutzen dituen, tratu onekoa, baikorra eta sinesmen eta espiritu handiko apaiza azaldu da. Gehienen iritziz gizon honek ez Jesusen Lagundiari soilik baino baita beste eliztarrei ere seinale jakingarri bat eman diezaieke; alegia, Europaz aparte, badirela beste nazio edo herri batzuk ere, eta badagoela ebanjelioa hainbat herrien artean zabaltu beharra eta mundu horietako kultura eta erlijioekin harremanak hobetzea ezinbestekoa dela.

## **Jesusen Lagundiarentzat itxaropen berri bat**

Jesuitek ere bazuten honelako gizon baten beharra. Aita Arruperen gidaritzapean, Jesusen Lagundiak pauso handiak eman zituen; baino, ez Aita Arrupek berak bakarrik hori nahi izan zuelako, Kongregazio orokorrak zer eta nola jokatu eskatu ziolako baizik. Esan beharra dago Arrupe, jesuitek agindutakoak betetzen saiatu zela eta batik bat Vatikanoko Kontzilioaren doktrina eta espiritu berria zabaltzen. Baino, garai hartan, arazoak sortu ziren lehenengo Paulo Seigarrenarekin eta ondoren Juan Paulo Bigarrenarekin. Giro hartan, hamabost bat urte igaro ondoren, bere kargua uztea nahi izan zuen baina Juan Paulo Bigarrenak ezetz erantzun zion. Handik gutxira, 1981. urtean gaixotu egin zen eta 1983. urtean jesuitek, kongregazio orokorrean bildurik Peter Hans Kolvenbach hautatu zuten. Krisialdi hartan, Aita Kolvenbach-ek zer egin handi eta zaila izan zuen: Jesusen Lagundi barnean berriz ere benetako batasun bat finkatu, Vatikanorekin harremanak hobetu, eta eliz agintaritzapean lan egin korapiloak edo ikusiezinak alde batera utzita. Honetan, Peter Hans Kolvenbach prepositu jeneralak lan bikain bat egin du, eta denek eskertu zioten 24 urtetan jeneral izan den garai luze hartan erakutsi zuen jakinduria, espiritua, eta baita eraman handia ere. Txalogarria izan da baita



*Kapituluko kideek.*

ere, Aita Kolvenbach-ek bere kargua uztea erabakitzea, kontuan harturik bere agintaritza gehiegi luzatzen ari zela (ia 25 urte) eta nahiz eta osasun onean izan, 80 urte betetzeko zegoela. Benedicto Hamaseigarrenak ontzat eman zuen asmo hori, eta kargua lagatzeko baimena eman zion. Ofizialki, Aita Kolvenbach-ek bere kargua urtarrilaren 14an, Kongregazio orokorraren eskuetan utzi zuen.

### **Jesuiten nagusi berriaren lehenengo agerraldiak**

Urtarrilaren 20an, meza nagusi bat ospatu zen Erroman, San Inazioren gorpua gordetzen den “*Gesu*” izeneko elizan. Han bertan, aldameneko etxean aurkitzen dira San Inaziok bere azken urteetan Jesuiten nagusi orokor bezala izan zituen gelak. Mezan egin zuen sermoian Aita Nikolasek denak harriturik utzi zituen bere benetako espirituaz, eta baita umore onaz ere.

Bestalde, nahiz eta oraindik ez erakutsi zein izan zitekeen bere programa, garbi utzi zuen, bere asmoetan munduko pobre guztiak izango dutela lehentasun bat eta baita hainbat lurralde-  
etako kultura eta erlijioak ere.

### **Benedicto Hamaseigarrenarekin**

Handik egun batzuetara, Aita Nicolas Vatikanora joan eta bakarrean, Benedicto Hamaseigarrenarekin hitz aspertu bat izan zuen. Zer nolako arrera izan zuen Vatikanon? Aurretik, asko izan ziren, kazetarien artean, Aita Nikolasen nortasuna, pentsaera eta esperientzia azpimarraturik, Vatikanorekin korapiloak izango zituela aurreratu zutenak. Benedicto hamaseigarrenak, bere poza erakutsi zion jakinik, Jesuitek benetan gogo biziz aztertzeko asmoa zutela berak Kongregazio orokorraren hasieran Aita Kolvenbach-i bidalitako eskutitza. Nolakoa zen eskutitz hori? Behin eta berriz, Aita Santuak eskabide batzuk errepikatu zituen. Zehazki, jesuitek egin ohi duten zin berezi bat, Aita Santuaren agindura jartzekoa, kontuan har dezatela. Elizaren doktrina beti errespetatu behar dutela ere zenbait aldiz esan zuen eskutitz hartan. Eta eliz agintariei zor zaien begirunea izan diezaietela. Baita ere, zehazki zenbait moral eta teologi arazoetan, elizaren doktrina erakuts dezatela. Hori bai, elkarrizketa girorik onenean ospatu zen eta Aita Nikolas berak kontatu bezala, une batetan Benedicto Hamaseigarrenak zera esan omen zion: “Zer gertatuko litzateke elizan, Jesusen Lagundirik gabe?” Eta Aita Nikolasek erantzun: “Eliza, Jesusen Lagundirik gabe ere bizi daiteke. Baiño Jesusen Lagundia ezin da elizarik gabe bizi”.

### **Norabide berriak**

Jesuiten artean, denek aho batez onartu dute Aita Adolfo Nikolasen izendapena Nagusi orokorra bezala. Baino ez Jesusen Lagundian bakarrik. Komunikabiderik gehienek txalotu dute aukeraketa hori. Baino zenbaterainokoa izan daiteke Aita

Nikolasen eragin-kortasuna, erantzukizuna? Gogoan hartu behar da, Aita Arrupek sarritan esan ohi zuen bezala, jesuiten nagusiak kongregazio orokorrrak hartutako erabakiak eta bide urratsak bereganatu behar dituela. Izan ere, munduko jesuiten batzarrak burujabetasun osoa du eta aita jeneralaren gaitetik dago batzarrean. Hala ere, kasu honetan, Aita Nikolasen pertsonak seinala berezi batzuk eman ditu. Batetik, jesuitek, benetan askatasun osoz, bere



ustez egokiena zen jesuita aukeratu dutela. Bestalde, Aita Nicolás, ez Europatik baino Asiako lurraldeetatik dator. Horrek zer esan nahi duen? Europa ez dela munduko bihotza edo zilborra, mundua zabala dela eta Asiako kultura eta erlijioak hemendik aurrera orain arte baino gehiago kontuan hartu behar direla. Bestalde, jakinekoa da, asko eta askok dioten bezala, ondorengo erronkarik handienak, gure mundurako, Asiatik datozela bai ekonomia, bai sozial arazoetan eta baita erlijio alorrean ere. Horietaz aparte, gaur egun milioi asko direla, bai Asian, eta baita Afrikan, sortaldeko nazioetan eta baita Ameriketean ere, behar handian bizi diren pobreak eta errefuxiatuak.

Gauzak horrela, behar ba da, sartaldeko eta bereziki Europan bizi garen kristauok Europaz ahaztu gabe, gure betiko arazo, asmo, eta pentsaera zertxobait baztertuz ikasiko dugula, hemendik kanpo bizi diren herriein gehiago arduratzen.


## **Kongregazio Orokorraren egitasmoak**

Baino zeregin handi eta zabal honetan, Aita Nicolás ez dago bakarrik. Bera aukeratu ondoren, batzar nagusiak bere lanean jarraitu du mundu osotik jesuitek bidali dituzten galderak eta eskakizunak aztertzen. 400 pasa izan ziren denera. Horiek denak, hamaika gaietan sailkatu zituzten. Bestalde, gogoan hartzekoak dira aurreko Kongregazioetan, batez ere 1965garren urtetik honantz egin diren kongregazioetan garrantzi handiko erabakiak hartu zirela eta horiek jarraipen bat izan behar dutela gaur ere. Horiek denak gogoan hartuz, gairik nagusiengatik, azken batzarrean hauek izan dira: jesuiten nortasuna eta zeregina gaurko munduan, fedea eta justiziaren arteko lotura, Jesusen Lagundiko barne gobernua, laikoan zeregina jesuiten ekintzetan, bokazioen urritasuna, gaztedia, jesuita ikasleen hezkuntza edo formazioa, ekumenismoa eta beste erlijioekin harremanak. Bide luzea dute, beraz, orain jesuitek. Baino batzar orokor honen giro bikaina ikusirik eta baita Jeneral berriaren nortasuna, pentsaera eta jatortasuna, badirudi, arnas berri bat hartu dutela jesuitek, eta aurrera jarraitzeko asmo bizi bat nabari dutela.

## **Jesusen Lagundia gaur**

Gaur egun, 19.000 pasa dira jesuitak. Arrupe 1965garren urtean jeneral bezala hasi zenean 36.000 ziren. Ordu ezkeror, ez jesuitek bakarrik baino baita erlijio erakunderik gehienak ere bokazio krisialdian aurkitzen dira. Dena den, jesuitek zeregin handia dute gaur ere elizan. Zehazki esanda, 200 pasa dira munduan dituzten unibertsitateak. Bi milioi eta erdi dira bere ikastetxeetako ikasleak. Laurehun mila pasa bere babespean





bizi diren errefuxiatuak. Bestalde, eta batez ere teologia, sozial eta moral gaitan, jesuitek duten eta zabaltzen duten doktrina beti izan da nahiko estimatua eta abangoardista. Bere aldetik

Paulo Seigarrenak, Juan Paulo Bigarrenak eta Benedicto Hamaseigarrenak zientzia ekintzetan aurrera egiten saia daitezela eskatu diete. Ez da behin ere erreza izan eta ez da izango ere, alde batetik kulturak, zientziak eskatu bezala aurrera egitea, eta bestetik, tradizioak edo betiko doktrinak errespetatzea. Baino arazo hori onartu behar den erronka bat da, aurrera egin nahi ba da, beti atzealdera begira egon gabe.

Asko hitz egin da, azken hilabeteotan Jesusen Lagundiari buruz. Behar bada garrantzi gehiegi eman zaio, gogoan harturik urtez urte, bereziki Europan eta baita Euskal Herrian ere, murrizten ari dela, eta indarra galtzen. Noski, egia da baita ere, ez dagoela geldi, eta urte hauetan asko ahalegindu dela bereziki laikoei geroago eta botere edo eraginkortasun handiagoa ematen bere ekintzetan: kolegioak, unibertsitateak batez ere. Edo baita ekintza berriak asmatu dituela bereziki beste erlijioekin harremanetan edo baita etorkinei eta munduko errefuxiatuei ere laguntzen. Baino bestalde ez dago zalantzarik, batez ere Euskal Herrian, ondorengo urteetan erabaki handi batzuk hartu beharko dituela ikusirik bokazio urritasuna eta bien bitartean bizi direnak zahartzen ari direla. Zorionez, eliza handia, zabala da, Jesusen Lagundia munduan zabaldurik dago eta bizimodu luzea izan dezake oraindik han edo hemen. Eta hemen ez ba da, beste hainbat nazioetan: Afrikan edo Ameriketako Sortaldeko herrietan edo Asian. Beren Jesuitak ohituta daude betidanik jaioterrietatik urrun bizitzera, izen handiko misiolariak historian erakusten duten bezala, adibidez, San Francisco Xabier edo Pedro Claver edo Mateo Ricci, banaka batzuk aitatzearren. Dena den, azken batzar orokorrean ageritzen bezala, badirudi jesuitek geroari begira argitasun eta arnas berri bat aurkitu dituztela.

*Inazio Arregi, S.J*